

## ***Hiriz besteko eremuetan\* kultur eskaintza zabaldu eta dibertsifikatzeko laguntzak. (Next Generation)***

*\* Udalerriak edo udalerria baino lurralde eremu txikiagoko erakundeak elkartzuz osatutako eremu geografiko bat, 30.000 biztanle baino gutxiago eta km<sup>2</sup> bakoitzeko 100 biztanle baino gutxiagoko dentsitatea dituena. Ikus udalerrien zerrenda oinarrietan.*

### **ESKATZAILEAK**

**Erakunde publikoak (toki erakundeen elkarteak barne)**

**Erakunde pribatuak irabazi asmoa eduki nahiz ez (tokiko, autonomiako edo Estatuko erakundeen mendeko erakundeak barne)**

Langile Autonomoen Araubide Berezian izena emanda dauden **profesionalak.**

Onuradunek, gainera, aurkeztutako proiektuarekin edo jarduerarekin bat datorren helburu sozial bat izan beharko dute, edo, Langile Autonomoen Araubide Berezian inskribatuta badaude, EJZren epigrafe hauetan egon beharko dute alta emanda:

- 2. sekzioko 86. multzoa
- 3. sekzioko 01, 02 eta 03 multzoak

**GUTXIENEO AURREKONTUA: 31.250 €**

### **AURKEZTU BEHARREKOA**

- Jardueraren gaineko azalpen txostena
- Jardueraren diru sarrera eta gastuen aurrekontu xehatua.
- Eskatzaileko arduradunaren erantzukizunpeko adierazpenak:
  - Datuen egiazkotasuna eta lagapenarena.
  - Jarduerari lotutako ekipoak, osagaiak, sistema integrazioak eta softwarea Europako Batasunean kokatutako hornitzaileengandik eskuratuak direla adierazten duena.
  - Ekimenarekin «kalte esanguratsurik ez egiteko» printzipiora egokitzen dela dioena.
  - Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planeko (PRTR) jarduketan exekuzioari buruzko datuak lagatzeko eta tratatzeko berariazko baimenarena.
  - PRTRn ezarritako zeharkako printzipioak betetzeko konpromisoari buruzkoa (eskuragarri dagoen eredu normalizatuaren arabera)
  - Europako Batasunak kofinantzatutako proiektuetan iruzurraren aurkako neurrien planean jasotako betebeharrak espezifikoki adierazten dituena.

### **KANPO GELDITZEN DIRA**

- a) Artistiko-kulturalak ez direnak
- b) Udalerrietako ohiko jai eta errituen programak
- c) Nekazaritzako eta eskulangintzako azokak
- d) Erdi Aroko merkatuen edo antzekoen antolaketa
- e) Lehiaketa eta jarduera gastronomikoak
- f) Udalerrietako turismoa sustatzeko jarduerak
- g) Aisialdiko, olgetako eta astialdiko jarduerak, baita jarduera sozial eta sanitarioak ere

### **DIRUZ LAGUNDUKO DIREN JARDUERAK ETA BALDINTZAK**

a) Proiektuak Gipuzkoako landa-ingurunean gauzatu behar dira.

b) Ekitaldi edo ikuskizun artistiko edo kulturalak, jaialdiak, erakusketak eta antzeko beste jarduera kultural batzuk, eremu hauen barruan: ikusizko arteak, zinema eta ikus-entzunezko arteak, antzerkia, dantza, zirkua, musika, literatura eta hitza, arkitektura, diseinua eta eskulangintza, diziplina anitzeko arte jarduerak eta kultura eta arteak zientziarekin eta/edo jakintza tradizionalarekin erlazionatzen dituztenak.

c) Eragile anitzeko parte hartzearen bidez –ideien laborategiak, proiektuen prototipoak, diziplinarteko ekimenak edo aliantza transektorialak–, kultura arloko esperimenezkoak, ikerketa eta berrikuntza bultzatzen dituzten eta lurraldean zehaztaperen praktikoa duten proiektuak.

d) Ondare immateriala, kulturari eta praktika garaikideei lotuta.

e) Artearen eta kulturaren arloko hezkuntza, transferentzia eta bitartekaritza jarduerak, teknologia berrien erabilera barne.

**Diruz lagundutako jarduerak 2023ko urtarrilaren 1etik 2023ko azaroaren 30era bitartean egon beharko dira**

IRIZPIDEA	PUNTUAK
<b>1. FASEA</b>	<b>30 puntu</b>
Jarduera deialdiaren helburuak lortzeko egokia izatea	10
Jardueraren kalitatea. Horretarako, haren interesa, berezitasuna eta izaera berritzailea aztertuko dira	10
Jarduerak hiriz besteko ingurunean izan dezakeen inpaktua	5
Lurraldeko eragile eta artisten parte hartzea	5
<b>2. FASEA</b>	<b>30 puntu</b>
Programaren aurrekontua orekatua eta egokia izatea eta bideragarritasun teknikoa eta finantzarioa	5
Ibilbide profesionala balioetsiko da, bai eta zer ekonomia eta antolaketagaitasun dituen	5
Jarduera edo proiektuaren iraunkortasuna; jarraitutasun bokazioa eta berau epe ertain-luzean mantentzeko aukerak	5
Proiektuan genero ikuspegia integratzea	5
Euskararen presentzia aurkeztutako proiektuan	5
Proiektuak eragin ditzakeen inpaktu guztiak neurtzeko eta ebaluatzeko tresnak txertatzea	5

1. fasean gutxienez 15 puntu lortu dituzten proposamenak bakarrik hartuko dira kontuan 2. fasean.

Halaber, eskabideak gutxienez 30 puntuko balorazioa lortu beharko du bi faseetako puntuak batuta, proiektua edo jarduera emakida proposamenean sartu ahal izan dadin.

## DIRU KOPURUA

Gehienez aurrekontu araztuaren %80 diruz lagundu daiteke.

(*Araztua: Administrazioak oinarrien irizpideen arabera aztertu eta zuzendutako kopurua*)

Proiektu bakoitzak gutxienez aurrekontuaren %20 ziurtatu behar du, hau da, beste iturri batzuen bidez: publikoak, pribatuak, pertsonalak...

## EPEAK

### • ESKAERAK AURKEZTEKO

**Azken eguna: 2023-03-24**

### • ZURIKETA AURKEZTEKO

Agiriak aurkezteko epea 2024ko urtarrilaren 30 artekoa da

## ORDAINKETA

Laguntzak bi zatitan ordainduko dira: %60 ebazpenarekin batera eta gainerako %40a zuriketa aurkeztu ondoren

## TRAMITAZIOA NOLA

Prozesu osoa Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza administratiboaren bidez egin behar da (<https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/>). Horretarako pasahitz operatiboa eduki behar duzu, edo ziurtagiri digitalen bat (B@kQ, DNle...)

Taula hau K bulegoak egindako laburpena da.

**Araudi aplikagarria Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutakoa da eta komeni da arretaz irakurtzea eskaera egin baino lehen:**

**Oinarri arautzaileak** <https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2022/08/24/c2205402.pdf>

**Deialdia** <https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2023/02/22/c2300974.pdf>

Edozein zalantza baduzu, K bulegoarekin jar zaitezke harremanetan telefonoz, emailaz edota bertara hurbilduta. Atsegin handiz lagunduko zaitugu zure eskaera auzkezterakoan izan ditzakezun zalantzak argitzen

**T 943 11 33 43 / [kbulegoa@gipuzkoa.eus](mailto:kbulegoa@gipuzkoa.eus) / [www.kbulegoa.eus](http://www.kbulegoa.eus)**

**Santa Teresa komentua**

Elbira Zipitria bidea 1  
20003 Donostia

K  
B  
U  
L  
E  
G  
O  
A



**Astlehenetik ostiralera: 09:00 - 14:00 \***

Bidelaguntza zerbitzua erabilgarri duzu, bulego ordutegitik kanpo ere.